

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ERANDIOKO UDALAREN 2009-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Erandioko Udalaren 2009ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdien azterketa besarkatzen du aurrekontu, diru-sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak hainbatetan urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: Bi kontratutan kontratuaren xedea eta bolumen ekonomikoa desitxuratu egin dira, esleipen prezioaren gainean % 75 eta % 43ko aldaketak onartu baitira; beste kontratu batean, zerbitzua dagokion kontratazio prozedura izapidetu gabe zuzenean kontratatu da.

Bestetik, izenpetu den hirigintzako hitzarmen batean Udalak hainbat prestazio ekonomiko betetzeko obligazioa jasotzen da; ordea, hitzarmenaren xedeak duen izaera doakoari eta Lurzoru eta Hirigintzako Legean aurreikusitako araubide juridikoari kontrajartzen zaio.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 296 mila euroan gehitu duena.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Amaitzeko, Udalaren finantza egoerari dagokionez esan da aztergai izan den 2007-2009 aldian Udalak inbertsio ahalegin handia egin duela eta hori finantzatu dela jasotako diru-laguntzek eragindako sarrerekin, urte horietan eskuratutako aurrezki garbi positiboarekin eta UFFFren 2009ko ekitaldiaren likidazio negatiboaren ordainketa geroratzearekin.